



**LEA ARTIBAI
AMANKOMUNAZGOA**

Ingurumen zerbitzua

Xemeingo etorbidea, 13.
48270 MARKINA-XEMEIN
Tfn: 94.616.90.68. Faxa: 94.616.92.78
E-mail: lurralde@lea-artibai.org
www.lea-artibai.org

**LEA ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA OSATZEN DUTEN HERRIEN INGURUKO
BILKETA SELEKTIBOTIK DATOZEN PAPER ETA KARTOI HONDAKINEN SALMENTA
ZERBITZUAREN ESLEIPENERAKO BALDINTZA-AGIRIA**

1. LEHIAKETAREN XEDEA

Agiri honen xedea da Lea-Artibai Amankomunazgoa osatzen duten herrien inguruko bilketa selektibotik datozen paper eta kartoi hiriko hondakin asimilagarrien salmenta zerbitzuaren kontratazioaren hitzarmenak ezartzea.

Jasotako paper eta kartoia bilketa selektiborako edukiontzi urdinetatik, merkataritza eta industriatik jasotako kartoietatik, “atez ate” jaso daitezkeenetik edo Lea-Artibai Amankomunazgoak ezartzen duen beste bideetatik datozenak, hori osatzen duten herrien eremuan.

Europar batasuneko (CPV) kontratuen hizkera arruntean zehazten den nomenklaturaren kodifikazioa horrela zehazten da: **CPV: 94020 90511400-6 Paper bilketa**

2.- ERAGIN EREMUA

Zerbitzuaren eragin eremua Lea-Artibai Amankomunazgoa osatzen duten herriak biltzen ditu: Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Ondarroa y Ziortza-Bolibar.

3.- KONTRATUAREN HASIERA ETA LUZERA.

Kontratua datorren **2018ko abenduaren 1ean hasiko da, beti ere kontratuaren adjudikazio prozesua bukatuta baldin badago.**

Kontratuak **hiru (3) urteko luzera izango du eta beste bi urtez luzatu ahalko da.** Gehienez 5 urte guztira.

Epe horren guztira esleipendunaren eskutik zerbitzuaren eskaintza hasten denetik hasiko da.

Kontratuaren prorroga derrigorrezkoa izango da Lea Artibai Amankomunazgoak kontratua, edo dagokion prorroga, bukatu baino 2 hilabete lehenago adosten badu. Dana dala, hasierako kontratua eta dagozkion prorrogak bukatu ondoren (gehienez 5 urte), onura publikoa dela eta, hurrengo esleipendun batek kontratua sinatu arte kontratuaren prorroga onartu beharko du, baina luzapen hori 9 hilabete baino gehiago ezin izango du izan.

4.- KONTRATUAREN BALIO ESTIMATUA ETA LIZITAZIOAREN PREZIOA

Kontratuaren balio estimatua 504.685 €koa da (bost urtekoak), hau da 302.811€ (hiru urtekoa, 100.937 € urterokoa delarik.

Lizitatzailerek euren eskaintzarik onena “entregatutako tona bakoitzarengatik lortutako euroak” bezala aurkeztu beharko dute, aurretik aipaturiko bilketa selektiboen ondoriozko paper-kartoia eskuratzeko eta Lea-Artibai Amankomunazgoak bere salmentagatik jasoko duen prezioztat hartuko da

Jasotako paper eta kartoia bilketa selektiborako edukiontzi urdinetatik, merkataritza eta industriatik jasotako kartoietatik, “atez ate” jaso daitezkeenetik edo Lea-Artibai Amankomunazgoak ezartzen duen beste bideetatik datozenak, hori osatzen duten herrien eremuan, kontratua gauzatzen den bitartean.

Aipaturiko eskaintzan BEZa kanpo egongo da.



Prezioa eta bere gorabeherak ASPAPELek Espainian berreskuratutako paper prezioen estatistikaren hileko prezioarekin erlazionaturik egongo dira.

ASPAPELek, Pasta, Paper eta Kartoiaren Fabrikatzaileen Espainiako Elkarteak, hileroko argitaratzen dituen merkatuko prezioak kontuan izanik, hurrengo lizitazio tasak ezarriko dira:

- MATERIALA A. Edukiontzi urdinetatik eta “atez atekotik” jasotakoak
ASPAPPEL KALITATEA 1.01 (“nahastu klasifikatu gabe”)
- MATERIALA B. Merkataritza eta industriatik jasotako kartoietatik (enbalatzeko kartoia)
ASPAPPEL KALITATEA 1.04 (“supermerkatuko kartoia”).

Lizitatuzaileek prezio horiek hobetu ditzakete. Horretarako, bere eskaintzetan prezio bakoitza zehaztu beharko dute:

- ASPAPPEL erreferentzia+ prezioan proposaturiko hobekuntza €/TN.

Ez dira ASPAPPEL erreferentzia baino baxuagoko eskaintzarik onartuko.

Kontratatzen betebeharra izango da berak dituen gordetze eta/edo berreskurapenerako instalakuntzetan Lea-Artibai Amankomunazgoak entregatutako bilketa selektibotik datozen paper eta kartoiaren harrera, aukeraketa, sailkatzea, prestatzea eta Paper Fabrika batera bidaltzea bere birziklapenerako, ondoren aurkezten diren jatorri, kalitate eta kantitate estimatuen (2016ko datuei jarraiki) arabera.

Material mota desberdinen kalkulua egiteko honako kantitatea hartu da erreferentziazat: “nahastu klasifikatu gabe: 1.01” 2017. urtean jasotakoa: **1.064.540 Kg**”

Material horren %50a 1.01 motakoa dela suposatuz eta beste %50a 1.04koa dela pentsatuz, kudeatuko diren kantitate estimatuak ondorengo koadroan agertzen dira:

JATORRIA	KALITATE	Kg/urtean (datu estimatua)
• Edukiontzi urdinetatik eta “atez atekotik” jasotakoak	1.01	Aurreikusia: 532.270
• Garbiguneetatik, merkataritza eta industriatik jasotako materialak	1.04	Aurreikusia: 532.270

Lizitatuzaileek kalean kokatuak dauden edukiontzietatik datozen materialentzat prezio bat eskaini beharko du, kalitatea 1.01 “nahastu klasifikatu gabe”, eta beste bat merkataritza, poligono industria, zabortegei eta garbiguneetatik datozen kartoiatarako eta kartoi edukiontzitarako, kalitatea 1.04 “supermerkatuko kartoia”.

Paper berreskuratuen kalitate deritzaio honako legearen zerrendan zehaztutakoa: “UNE-EN 643 – Paper eta kartoia. kalitate normalizatutako berreskuratutako paper eta kartoiaren zerrenda Europarra.”

- **Kalitatea 1.01 “nahastu klasifikatu gabe”**



1.01 kalitatea Lea-Artibai Amankomunazgoa osatzen duten herrietan biztanleek edukiontzien bidez egindako ekarpen bidez Selektiboki Bildutako paper eta kartoi material bakarraren zatikia ordezkatzeko du.

- **Kalitatea 1.04 “supermerkatuko kartoia”.**

1.01 kalitatea Lea-Artibai Amankomunazgoak momentu bakoitzean onartutako edukiontzi espezifikoko, kaiola, edukiontzi ireki, konpaktazio ekipo, eskuzko bilketa edo aukeraketa eta garraiorako beste edozein moduren bidez selektiboki eremu komertzialetan eta poligono industrialetan Bildutako kartoi zatikia ordezkatzeko du.

Hala ere, lizitatuzaileek paper-kartoi kopuruaren gorakada progresiboa aurreikusi beharko dute kontratua indarrean dagoen epean zehar, gizartearen kontzientziazioaren ondorioz, biztanle gehiagok parte hartu baitu proposaturiko Bilketa Selektiboko sistemetan.

Pisaketa, kalitatea eta helmuga agiri honen ezaugarri teknikoetan jartzen duenaren arabera egingo da.

EZ DIRA ONARTUKO UKAPENAREN ONDORIOZKO DESKONTURIK PREZIOAN.

1. Kontratuaren gauzatzea Itsasalde Kantabrikoan burutuko dela kontuan izanik, honen meteorologiaren ezaugarriekin, **ez da ukapenaren ondoriozko preziorik onartuko**, entregatutako materiala hezetasun mailagatik edo garbiketagatik egoera txarretan egon daitekeelako
2. Ez dira onartuko ezta, nahi ez diren materialak (kartoia eta papera ez direnak) iritsi daitezkeelako deskonturik. Eta hauek lizitatuzaileek beren eskaintzetan egiten duten prezioan kontuan hartu beharko da.

5.- PREZIOEN BERRIKUSPENA.

Ez da prezioen berrikuspena egingo

6.- ORDAINKETA MODUA.

Kontratastak Kontratuaren prezioaren ordainketagatik Lea-Artibai Amankomunazgoari hilero ordainduko dio, hilero dagokion likidazio jakinarazpenaren aurka.

Administrazioak jasoko duen diru-kantitatea momentu bakoitzean eskainitako unitate bakoitzeko prezioen eta kontratistaren instalakuntzetan entregaturiko sortzapenaren hil horri dagokion material kantitatearen produktua izango da.

Desegokitasuna, hezetasunaren edo honekin erlazionatutako bestelako arrazoien ondorioz ez dira deskonturik onartuko. Lizitatuzaileek honelako bilketen, plubiometria mailen, etabarren inguruan dituzten esperientzia eta ezagutzak kontuan izan beharko dituzte lizitazioaren prezioak ezartzerakoan.

Materialen lagapenaren fakturen ordainketa sortzapenaren hileko lehenengo hamabostaldian burutuko da. Legedia fiskalak subjektu pasiboa BEZaren inbertsioan sartuko balu, esleipendunaren ardura izango da ordainketa betekizun honekin betetzeko nahikoa denborarekin igorri beharko du autofaktura.

Aipaturiko zenbatekoak epean ez ordaintzeak, SPKL 9/2017an zehaztutakoaren arabera, kontratastak Amankomunazgoari luzapenaren interesak ordaintzea dakar eta, modu berean, zigorrak ezartzea eta kontratuaren ebazpena ekar lezake.



7. KONTRATAZIO PROZEDURA

Zerbitzuen kontratu hau prozedura ireki eta ohizko tramitazio bidez egingo da, SPKLren 131 eta 156tik 158rako artikulua barne hartuz.

Bere esleipenerako eskaintzarik onuragarriena aukeratuko da eta horretarako zenbait irizpide kontuan hartu daitezke.

Organo kontratatzaileak eta pertsona kontratistak konfidentzialtasun beharrak beteko dituzte, SPKLren 133 artikulua araberak.

Lizitatzailerak den pertsona bakoitzak eskaintza bakarra aurkeztu dezake.

8. ENPRESABURUAREN KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA.

8.1. Gaitasun eta Trebeziak.

Lizitatzailerak Agiri honetan zehazturiko baldintzak eta kaudimenak bildu beharko ditu, hortaz, ondorengo gaitasun baldintzak bete beharko ditu:

1. Pertsona natural edo juridikoak izatea (espainiarrak edo atzerritarak)
2. Obratzeko gaitasun osoa edukitzea.
3. Kontratatzeko edonolako debekurik ez izatea ezta horrelako prozesu batean egotea, SPKLren 71 artikuluan zehaztuta daudenak
4. Kaudimen tekniko edo profesional eta ekonomiko eta finantzieroa frogatzea edo Talde espezifiko batean behar bezala klasifikatua egotea, SPKLren 86, 87 eta 90 artikuluetan zehaztuta daudenak

Enpresa lizitatzailerak ingurugiroko legedia bete beharko dute, IV Eranskinarekin bat datorren aitortpena eginez.

Pertsona juridikoak direnean frogatu beharko dute helburuak, xedea edo entitatearen jardueraren alorrak kontratua osatzen duten zerbitzu guztiak garatzen dituela. Honen egiaztatzea estatutu sozialen edo arau fundazionalen dokumentuak Erregistro merkantil edo entitate sozial motari dagokion erregistro ofizialean aurkeztu beharko da.

Beraiek edo beren ordezkariak aurkeztu ahal izango dute, horretarako botere nahikoa badute. pertsona juridiko baten ordezkari gisa horren parte den kidea etortzen denean, horretarako gaitasuna duela justifikatu beharko du. Kasu batean zein bestean, ordezkariari aurretik aipaturiko kontratatze debeku eta inkompatibilitateen mende dago baita ere.

Modu berean, eskatutako habilitazio enpresarial edo profesionala dutela justifikatu beharko dute.

Enpresa ez komunitarioentzako, komunitarioentzako eta enpresaburuen batasunentzako, SPKLren 79,80 eta 81 artikuluetan jartzen duenari jarraituko zaio.

Enpresaburuen batasunek behin behineko taldeetan badaude ordezkari bat izendatu beharko dute edo eskubideak izateko eta betebeharrak betetzeko nahikoa botere duen kide bat aukeratu beharko dute. Ordezkari hau kontratuaren amaierara arte egongo da eta Amankomunazgoko botereei ezingo die eragin, zeinak diru kantitate esanguratsuak ordaintzeko eta ordainketak eskatzeko ahalmena duen.



Lizitazioaren efektuei begira, Behin Behineko Batasuna osatzen duten enpresaburuek bertan parte hartzen duten bakoitzaren izen eta egoerak azaldu beharko ditu, baita hori osatu dutenaren konpromisoa ere esleipendunak izaten badira.

8.2. Kaudimena

Lizitazio honetan parte hartu ahalko dute kaudimen ekonomiko eta finantzieroa egiaztatu dezaketen pertsona natural edo juridikoak:

1.-Lizitatzaila den pertsonak jardueraren exekuzioaren hirurehun mila euro (300.000€) estaliko duen aseguruia izendatua izan beharko du, baita ariketa honen betekizunerako behar diren beste aseguruak ere.

2.- Azkeneko bost urtetan kontratuaren xedeari dagokion negozio bolumena kontratuaren diru-kantitatea baino gehiagokoa izan beharko da, hori aitorten juratu eta urte bakoitzeko erregistro ofizialean edo dagokionean aurkeztutako kontuen fotokopia konpultsatua.

Modu berean, lizitazio honetan parte hartu ahalko dute kaudimen ekonomiko eta finantzieroa egiaztatu dezaketen pertsona natural edo juridikoak:

BAT. Entitate publikoetan kontratu honen xede diren zerbitzuak(bilketa selektibotik (paper eta kartoi fabrikaziotik datozen hondakinak kontuan izan gabe) tonaka datozen paper eta kartoi hondakin kudeaketa) emateko esperientzia izatea, egoera hori dagokion entitate publiko zein pribatuaren eskutik lortutako ziurtagiria aurkeztuz edo kontratuen fotokopia konpultsatua entregatuz egin behar da.

BI. Hurrengo baliabideak izan beharko ditu:

- Kontratuaren gauzatzeko enpresariak dituen material, instalakuntza eta ekipoen aitorpena.
- Kontratuaren xede diren LER kodeentzat arriskutsuak ez diren hondakin kudeaketarako baimena.
- Bolumen honetako paper/kartoiaren kudeaketa burutzeko beharrezkoak diren instalakuntzak eta ekipo teknikoak egunerokotasunean izatea.
- Azkeneko bost urtetan zehar burututako bilketa selektibotik datozen paper eta kartoi hondakin eskuratze kontratuaren betetze egokiaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzea.

HIRU. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergetan izena emanda egotea, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean (622-berreskuratutako beste produktuen handizkako salmenta), horren altaren aurkezpenaren bidez, jarduera erregularrari badagokio, edo JEZeko azkeneko ordainagiria, bestelako kasuetan. Bi kasuetan baja eman ez dela ziurtatzen duen erantzukizun aitorpenarekin bat.

SPKLren 141.artikuluaren jartzen duenaren arabera, artikulua honetako 1. atalean ezarritako dokumentazioaren aurkezpena, pertsona lizitatzailaren erantzukizun aitorpenarekin ordezkatzeko da eta hau III Eranskinarekin bat etorri beharko da.

9.- DOKUMENTUEN ADIERAZPEN PUBLIKOA.



Proposamenen aurkezpen epea lizitazio iragarkiak Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratutakoa izango da eta ez da **35 egun** natural baino gutxiagokoa izango Euskadiko Kontratu Publikoen Plataforman, SPKL 156(159) artikuluan jartzen duenari jarraiki.

Proposamen eta dokumentu osagarriak Amankomunazgoko Sarrera Orokorreko Erregistroan aurkeztuko dira, 9:00etatik 14:00etara, Europar batasuneko egunkari ofizialean (DOUE) publikatu eta ondorengo 35 egunetan..

Modu berean, aipaturiko prozedura LEA ARTIBAIko Amankomunazgoaren kontratatzailea profilean argitaratuko da SPKLren 135 artikuluan agertzen den bezala, baita Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman ere aipaturiko legearen 347 artikulua betez.

Lehenengo 8 egunetan zehar, Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkitik zenbatzen hasita erreklamazioak aurkeztu ahalko dira, dagokion organo kontratatzailean.

LEA ARTIBAIko Amankomunazgoaren kontratatzailea profilean lizitazio iragarkia agertzen denetik eta proposamenen bilketaren azkeneko egunera arte, pertsona lizitatzailerak aipaturiko profila, Klausula Administratibo Partikularren Agiria, Preskripzio Teknikoen Agiria, eranskinak, iragarkia, mahai kontratatzailearen osaketa edota lizitazio honi dagokion edozein informazio eskura dezake.

10. PROPOSAMENEN AURKEZPEN LEKUA ETA MODUA.

10.1. Proposamenen aurkezpena.

Enpresa lizitatzailer bakoitza proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du eta ez dira eskaintzetan aldaerak onartzen. Debeku honen ez betetzeak bikoiztuta dauden proposamen guztien ukapena ekar dezake.

Ezin izango da Behin Behineko Batasunean besteekin egon, bakarrik edo beste behin behineko batasun batekin aurkeztu bada. Arau hauen hausteak honek egindako proposamen guztiei uko egingo zaie. Ez dira onartuko Amankomunazgoak garrantzitsutzat jotzen duena ezagutzen zailtzen duten omisioak, akatsak edo zirriborroak edo eskatzen denean baliabide pertsonal edo materialak ez zehaztea. Dokumentuak dagokien gutun azalean ez sartzeak eta horregatik eskaintza behar ez den momentuan ikustea kanporatzeko arrazoia izango da.

Proposamen teknikoak Agiriko Preskripzio Teknikoetan eskaturiko muturrak sartu beharko ditu.

Gainera, baloraziorako beharrezkoak diren eskaintzak kontuan hartu beharko ditu agirietan ezarritako irizpideekin bat eginik, baita dokumentu teknikoaren barnea sartu nahi diren bestelako egoeretan ere.

Proposamenen aurkezpenak esan nahi du Lizitatzailerak Agiriko klausulen edukia eta Preskripzio Teknikoen Agiria salbuespenik gabe onartzen dituela.

Eskaintzak bi(2) hilabeteko epea izango du proposamenen aurkezpenaren amaierako egunetik hasita. Epe honetan, lizitatzailerak den pertsonak ezin izango du bere eskaintza atzera bota eta egingo balu zigor bat ordaindu beharko du horren ez betetzeak Amankomunazgoari sortu dizkion kalteengatik. Epe honen amaieran oraindik ez badago esleipendunik eta ez bada eskaintza atzera botatzen ulertuko da indarrean jarraituko duela. Esleipena komunikatzen bazaio hori betetzera derrigortua egongo da.

10.2. Proposamenen aurkezpen modua.

Proposamenak euskaraz edo bi hizkuntzetan (euskara/gaztelania) aurkeztuko dira.



Proposamenak GUTUN-AZALETAN aurkeztuko dira 1,2 eta 3 zenbakiekin adieraziz, hurrenez hurren.

Beste dokumentu batean pertsona lizitatzaillearen izena idatziko da, bere beste zenbait datuekin batera: jakinarazpenak biltzeko helbidea elektronikoa, helbide soziala, telefonoa, espediente zenbakia eta izenburua. Dokumentuak honako moduan aurkeztuko dira:

Proposamenen formatu eta aurkezpena:

- a. Aurkeztu beharreko dokumentuak, hala proposamen teknikoari dagozkionak nola proposamen ekonomikoari dagozkionak, agiri honen eduki eta formei jarraituz atxikituko dira. Dokumentu guztiak euskarri digitalean (kopia bat) aurkeztuko dira, PDF formatuan, hain zuzen ere eta baita ere paperean.

A) 1. GUTUN-AZALA - DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK.

Barnean izango ditu SPKLren 141.artikuluaren adierazitako honako dokumentuak:

1º) Atxikitako den erantzukizun aitortpena Europako kontratazio eredu bakarrari jarraiki egin beharko da. Agiri honetako III Eranskinean dagoen Eredua bete daiteke SPKLren 140 artikuluekin bat baitator eta bertan pertsona lizitatzailleak administrazioarekin kontratatze baldintza legalak betetzen dituela adierazten da. Honen bidez, Organo Kontratatzailearekin dokumentuen bidez Legeetan bildutako egiazkotasun irizpideak betetzen dituela egiaztatzen konprometitzen da, legez ekartzen baldin bazaizkio (SPKL 141.art.).

2º) Kontratatze edozein debekuetan sartua ez dagoela II Eranskinean jasotakoari jarraiki eta ogasunarekin erlazionatutako betebeharrak guztiak eguneratuak dituela, baita Gizarte Segurantzarekin ere. Justifikapen hau esleipena egindakoan aurkeztu beharko da enpresaria den pertsonaren onuran.

3º) Bere kasuan: Eskaintza lizitatzaillearen behin behineko batasun batek aurkeztuko balu, Enpresen Behin Behineko Batasunaren (EBBB) osaketaren konpromisoa atxikitu beharko da baldin eta esleitua suertatzen bada. Hori enpresa bakoitzeko ordezkari guztiek sinatu beharko dute eta, aldi berean, EBBBren ordezkaria izendatu beharko dute, baita bakoitzaren parte hartzea ere.

4º) Langileen %2a behintzat desgaitasunen bat duten langileen kopurua dutela ziurtatzen duen dokumentua edo hori lortzeko ezartzen ari diren bideak justifikatzea IV Eranskineko ereduari jarraituz.

SPKLren erregulaturiko lehentasunarekin esleipenerako kontatzen duen Lizitatzaila den pertsonak, bere proposamena aurkeztu ondoren, justifikatu beharko du bere langileen artean %2a behintzat desgaitasunen bat duten langileen kopurua dutela edota enpresa edo pertsona lizitatzaila gizarte bazterkeria jasaten ari diren pertsonen sustapena eta lan arloan sartzeko promozioetan dabilela.

Pertsona lizitatzailleak justifikatu beharko du Euskadin dituen zentroetako langileen %2ko kopurua baino gehiago ordezkatzeko dutela desgaitasuna duten pertsonen eta desgaitasun hori %33koa edo gehiagokoa izan beharko du.

5º) Jakinarazpenak: pertsona lizitatzaille guztiak helbide elektronikoa bat eta telefono zenbakia adierazi beharko dute jakinarazpenak bidaltzeko.



B) 2. GUTUN-AZALA.- BALIO IRIZPIDE BATEN MENPEKO PONDERAZIOARI DAGOKION DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Karpeta honetan bertan dauden dokumentuen aurkibidea izan beharko du beste orri independente batean non edukiaren izenburua zenbakiz eta adierazitako ordenan azaldu beharko den.

Hurrengo irizpideak ebaluatzeko dokumentuak:

1. Zerbitzuaren Oroitidazki Tekniko Deskriptiboa. Bere luzera gehienez 10 orritakoa izango da eta atal teknikoan deskribaturiko arloen garapena hartuko da kontutan.

10.3 HOBKUNTZAK

Hobekuntzak onartzen dira:

Hobekuntzak, agiri honetan eskatutako zerbitzu derrigorrezkoetatik at, modu independentean aurkeztu beharko dira eta kontratuaren balio estimatutik desberdina den ebaluazio ekonomiko batekin.

Hurrengo hobekuntzak puntuatuko dira:

- Lea Artibai Amankomunazgoarekin adostutako, papera eta kartoiaren banaketa eta berreskurapen tasak handitzeko komunikazio eta kontzientziario kanpainak egitea. Hauek burutzea eta ordaintzea beti esleipendunaren kontu izango dira.
- Papera eta kartoiaren aurrebilketan hobekuntzak egitea
- Sailkapen edota berreskurapen plantara eramateko bildutako papera eta kartoiaren bolumena gutxitzen duten hobekuntza teknikoak

Esleipenean organo kontratatzaileak onartutako hobekuntza proposamenak kontratuaren parte bihurtuko dira, beraz, bertan jaso beharko dira espresuki.

C) 3. GUTUN AZALA. PROPOSAMEN EKONOMIKOA.

Proposamen Ekonomikoa egongo da bertan non kontratuaren exekuzioaren prezioa adieraziko den BEZa independentea de diru-kantitate bezala agertuz.

Proposamen ekonomikoa I Eranskinean agertzen den ereduari jarraiki egin beharko da.

11.- KONTRATUAREN ESLEIPENERAKO IRIZPIDEAK

Lizitazio honetan jarraitu beharreko esleipen irizpidea Administrazio Partikularren eta Preskripzio Teknikoaren Agirien baldintzak betez Amankomunazgo honetarako kalitate-prezio harreman onuragarriena duen eskaintza izango da. Honakoak dira EBALUAZIO IRIZPIDEAK:

Ebaluazio automatikorako honako hiru irizpide hauek izango dira kontutan soilik (gehienez 77,5 puntu):

Irizpide Objektiboak:

1. Irizpidea.- Proposamen ekonomikoaren kantitatea
2. Irizpidea.- Proposamen ekonomikoaren prezio minimo bermatua
3. Irizpidea.- Jasotako materiala uzteko instalakuntzen kokapena
4. Irizpidea.- Pliegoari egindako hobekuntzak



1. IRIZPIDEA Xedea.- Proposamen ekonomikoaren zenbatekoa (50 puntu)

Eskaintzak ikuspegi ekonomiko batetik baloratuko dira onuragarrienak direnak
Proposamen ekonomikoen haztapan eraginetara, papera eta kartoiarentzako eskaintako prezioak izango dira kontuan, hurrengo formularekin

$$\text{Prp} = (\text{Paperaren prezioa}) * 0,60 + (\text{Kartoiaren prezioa}) * 0,40$$

Prp lizitatzailerako bakoitzeko haztapan prezioa izanik.

Proposamen ekonomiko altuenak 50 puntu lortuko ditu eta gainerakoei honako formula bidez aplikatuko zaie:

Ebaluazioa:

$$(\text{Proposamen ekonomikoa} / \text{Proposamen ekonomiko altuena}) \times 50$$

2. IRIZPIDEA Xedea.- Proposamen ekonomikoaren prezio minimo bermatua (15 puntu)

Proposamen ekonomikoen prezio minimoak ikuspegi ekonomiko batetik baloratuko dira onuragarrienak direnak.

$$\text{Prp} = (\text{Paperaren prezioa}) * 0,60 + (\text{Kartoiaren prezioa}) * 0,40$$

Prp lizitatzailerako bakoitzeko haztapan prezioa izanik.

Proposamen ekonomiko altuenak 10 puntu lortuko ditu eta gainerakoei honako formula bidez aplikatuko zaie:

$$(\text{Proposamen ekonomikoa} / \text{Proposamen ekonomiko altuena}) \times 15$$

3. IRIZPIDEA Xedea.- Jasotako materiala uzteko instalakuntzen kokapena (10 puntu)

Gehienez ere 10 puntu lortuko dituzte paper-kartoi hondakinen sorrerako ardatz grabitatoriotik gertuen dagoen instalakuntzak, kasu honetan Berriatuako Merelludi, 32an dagoen pabiloia hartuko da kontuan.

Esparru honetan puntuen izendapena honako moduan egingo da:

Berriatuako Merelludi, 32an dagoen pabiloia hasiera puntutzat hartuz, errepideen sare nagusitik lizitatzailerako proposaturiko instalakuntzetara joateko dauden kilometroak zenbatuko dira, puntuen banaketa honela egingez:

Distantziarik laburrenak 10 puntu lortuko ditu eta gainerakoei honako formula hau aplikatuko zaie:

$$\text{Ebaluazioa: } (\text{Instalakuntzetara dagoen distantziarik laburrena (Km)} / \text{Instalakuntzetara dagoen distantzia Km}) \times 10$$

4. Irizpidea.- Pliegoari egindako hobekuntzak (2,5 puntu)

Hurrengo hobekuntzei buruz egindako proposamenak gehienez 2.5 puntukin baloratuko dira:

- Lea Artibai Amankomunazgoarekin adostutako, papera eta kartoiaren banaketa eta berreskurapen tasak handitzeko komunikazio eta kontzientziario kanpainak egitea. Hauek burutzea eta ordaintzea beti esleipendunaren kontu izango dira. 1,5 puntu arte
- Papera eta kartoiaren aurrebilketan hobekuntzak egitea. 0,5 puntu arte
- Saillapen edota berreskurapen plantara eramateko bildutako papera eta kartoiaren bolumena gutxitzen duten hobekuntza teknikoak. 0,5 puntu arte



Puntuazioa emateko, hobekuntzak ekonomikoki baloratuak eta zehatz mehatz deskribaturik egon beharko dira. Horrela baloratuko da:

(esleipendunaren proposamena/proposamen altuena) x hobekuntza bakoitzari dagokion puntuazioa

BALIO-IRITZI BATEN MENPE DAUDEN BESTE IRIZPIDE BATZUK (22,5 puntu)

- A. ZERBITZUAREN ESKAINTZAN ERABILIKO DIREN BALIABIDEEN HARREMANA: *alor honi gehienez 6 puntu dagozkio honela banatzen direnak:*
- ✓ Harrapaketa eta garraioa burutzeko pertsonal kualifikatua. *Gehienez 2 puntu*
 - ✓ Baliabide materialak (babestutako giza enpleguaren %). *Gehienez 2 puntu*
 - ✓ Ditutzen instalazioak (deskribapena). *Gehienez 2 puntu*
- B. BILTZE ETA KUDEATZERAKO PLANA ETA PROZEDURA : *alor honi gehienez 4,5 puntu dagozkio honela banatzen direnak:*
- ✓ Biltzeko eta harrapatzeko protokoloa. *Gehienez 2,5 puntu*
 - ✓ Istripu edo larrialdi egoeratan ekiteko protokoloa. *Gehienez 2 puntu*
- C. KONTROLA ETA KALITATEA: *alor honi gehienez 4,5 puntu dagozkio honela banatzen direnak:*
- ✓ Enpresaren– Amankomunazgoaren Zerbitzu Teknikoen arteko informazio eta koordinazioa. *Gehienez 2,5 puntu*
 - ✓ Protokoloen aplikazioa/estandarizaturiko ekiteko protokoloak eta neurgarriak diren adierazleen aplikazioa dutenak. *Gehienez 2 puntu*
- D. JASANGARRIAK DIREN ASPEKTUAK *alor honi gehienez 7,5 puntu dagozkio honela banatzen direnak*
- ✓ Energia alternatibo edo garbien edo oso gutxi kutsatzen duten erregaien erabilera. *Gehienez 1,5 puntu*
 - ✓ Kontratuaren exekuzioan ingurugiroko praktika egokiak burutzea. *Gehienez 1 puntu*
 - ✓ Substantzia toxiko edo ingurugiroan eragin negatiboa dutenen gutxitzea: PVC, formaldehidoa, metal pisutsuak, egur tropikalak, *Gehienez 1 puntu*
 - ✓ Ibilgailu eraginkorren erabilera: *Gehienez 1 puntu*
 - ✓ Langileentzako ingurugiro formakuntza. *Gehienez 1 puntu*
 - ✓ Ingurugiroaren egiaztatzea (ekoetiketak) dituzten produktuen erabilera: *Gehienez 1 puntu*
 - ✓ Birziklatutako material, ontzi eta produktuen erabilera: *Gehienez 1 puntu*

12.- ESKAINTZAK BALOREAK DITUELA KONTSIDERATZEKO IRIZPIDEA

ANORMAL O DESEGOKIA.

Eskaintzaren bat anormalki edo oso baxua dela kontsideratzen da eskaintako prezioa gainerako batez bestekoa baino %25 baxuagoa denean, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Erreglamentu Orokorreko 85 artikuluan xedatzen denaren arabera. Hau urriak 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartu zuen eta Organo Kontratatzailearen gaitasunetik at dago. Halere, pertsona lizitatzailaren txosten egokiak eta audientziak arauen betetzea adierazi dezakete.

EZ DA ONARTUKO ASPAPEL ERREFERENTZIA BAINO GUTXIAGOKO PROPOSAMENIK.



13.- KONFIDENTZIALTASUNA

SPKLren disposizioetan esaten denetik at, esleipenaren iragarkiari eta hautagaiak diren pertsonen informazioari dagokionean, horiek konfidentzialtat izendatu dezakete zabaldutako informazioaren zati bat, bereziki sekretu tekniko edo komertzialen ingurukoa eta horien aspektu konfidentzialena. Organo kontratatzaileek ezin izango dute informazio hori zabaldu haien baimenik gabe.

Modu berean, kontratista den pertsonak agiria irakurtzerakoan eskuratu dezakeen informazioaren izaera konfidentziala errespetatu beharko du, baita kontratuaren exekuzioan zehar lortu dezakeenarena ere. Izaera hau jakin denetik 5 urteko epe batez mantendu beharko da, epe luzeagoa zehazten duten agirietan edo kontratuetan salbu.

14.- KONTRATATZAILEAREN PROFILA

LEA ARTIBAIko Amankomunazgoaren **kontratatzailearen profilean** lizitazio iragarkia agertzen denetik eta proposamenen bilketaren azkeneko egunera arte, pertsona lizitatzailerak aipaturiko profila, Klausula Administratibo Partikularren Agiria, Preskripzio Teknikoen Agiria, eranskinak, iragarkia, mahai kontratatzailearen osaketa edota lizitazio honi dagokion edozein informazio eskura dezake, SPKLren 63. artikulua arabera.

Kontratatzailearen profilerako sarrera publikoa webgunetik egingo da: <http://www.lea-artibai.org/>

15.- KONTRATAZIOAREN MAHAIA ETA DOKUMENTUEN ETA PROPOSAMENEN IREKIERA.

15.1.- Kontratazio Mahaia.

Kontratazio Mahaia honako kideek osatuko dute:

1. LEHENDAKARIA: Rakel Elu Bengoetxea.
2. IDAZKARIA: Lehendakariak, entitatearen langilegoaren artean izendaturiko pertsona.
3. BOKALAK:
 - ✓ Juan Miguel Arostegi jauna eta Erakundeko Lehendakariak izendatutako teknikari bi.

Beti ere, mahaia egoki osatua egongo da eta gutun-azalak behintzat lehendakaria, zerbitzu ekonomikoaren arduraduna, beste bokal bat eta idazkaria aurrean daudela irekiko dira.

15.2.- Dokumentuen Kalifikazioa.

Kontratazio mahaiak lehenengo gutuna barne ekitaldi batean irekiko ditu eta epe eta forma egokian aurkeztutako dokumentuen hasierako kalifikazioa egingo da. Adierazitako kalifikazioaren eraginetara, Lehendakariak gutunen irekiera aginduko du eta Idazkariak bakoitzean dauden dokumentuen harremanak ziurtatuko ditu.

SPKLren 65 eta 71 artikuluetan zehaztutako eraginei dagokienez, kontratazio organo eta mahaiak enpresaria den pertsonari aurkeztutako dokumentuen inguruko azalpenak edo dokumentu berriak eska diezazkiokete. Hori 3 eguneko epean aurkeztu beharko luke eta ez behin eskaintzak onartutakoan, HAKLAOko 83.6 artikuluan jartzen duenaren arabera.

Mahai Kontratatzailerak aurkeztutako dokumentazioan akats edo arazorik begiztatuko balu, kontratistek hitzez adieraziko litzaieke. Aurrekoaren kalterik gabe, horrelako egoerak Amankomunazgoaren iragarkien tabloian argitaratuko dira eta helbide elektronikoaren bitartez ere jakinaraziko dira, lehenengo gutun azalaren irekieratik gehienez ere 3 egun balioduneko epea pasa arte. Epe honetan pertsona



lizitatzailleak akatsak zuzendu beharko ditu Mahai Kontratatzaillearen aurrean. Honek ez ditu gainerako epeak geldiaraziko.

Zuzenketa horiek proposamenen irekieraren ekitaldi publikoan aurkeztuko dira eta iragarki tabloian azalduko dira. Zuzenketa ez egiteak lizitaziotik kanporatzea ondorioztatuko du.

Behin mahaiak SPKLko 141.artikuluaren dokumentuak kalifikatu eta zuzendu dituela, onartutako lizitazioak adieraziko dira, baita atzera botatakoak eta horren kausak ere.

Idazkariak aktan aurreko guztia jasoko du, zuzenketen ondorioa barne, eta pertsona lizitatzaille onartu eta kanporatuen berariazko aipamena egingo du. Azkenekoen kasuan, atzera botatzearen arrazoiak zehaztuko dira eta pertsona lizitatzailleari eskaturiko dokumentu kopurua adieraziko da.

15.3.- 2. Gutun-azalaren irekiera- Balio-iritzien eta proposamenen menpeko haztapen irizpideekin erlazionatutako dokumentuak

- A) Bigarren karpeta irekieraren barne ekitaldian, balio-iritzi baten menpe dauden haztapenen irizpideekin erlazionatutako dokumentuak, adierazitako leku, data eta orduan, Mahaiko Lehendakariak aurkeztutako dokumentuen emaitza adieraziko du, onartutako eta baztertutako plikak eta horretarako arrazoiak ezagutaraziz. Emaitza HAKLAOko 82.artikuluaren arabera jakinaraziko da.
- B) Jarraian, Mahaiak bigarren karpeta irekiko du, non balio-iritzi baten menpe dauden haztapenen irizpideekin erlazionatutako dokumentuak dauden.
- C) Behin gutun guztiak irekiak daudela eta SPKLko 150 artikuluetan ezarritakoarekin bat eginez, Kontratazio mahaiak kontratuarekin erlazionaturiko beharrezkoa dirudien informazio tekniko guztia bildu dezake, horretarako gaitasuna baitu.

15.4.- 3. Gutun-azalaren irekiera – Proposamen Ekonomikoa.

Hirugarren karpeta irekieraren ekitaldi publikoan, proposamen ekonomikoa, Mahaiko Lehendakariak balio-iritzi baten menpe dauden irizpideei egokitu zaien haztapena, adierazitako leku, data eta orduan, aurkeztutako dokumentuen emaitza adieraziko du.

Jarraian, Mahaiak onartutako pliken hirugarren gutun-azala irekiko du. Baten-baten proposamenak lizitazio oinarritik kanpo badago, ezarritako ereduak sakonki aldatuko balitz, proposamenaren kantitatean akatsen bat dagoela esango balitz, pertsona lizitatzaillea ezagutaraziko balitz edo akats batengatik bideratu ezinezkoa balitz, kanporatua izan liteke arrazoitutako ebazpenean. Ordea, ereduaren hitz batzuen aldaketa edo omisioak zentzua aldatzen ez badu, ez da izango proposamena atzera botatzeko arrazoi nahikoa.

Behin eskaintza guztiak harremanak daudela, Kontratazio Mahaiak gaitasuna duten Zerbitzu Teknikoei beharrezkoa eta kontratuaren xedearekin erlazionatutakoak iruditzen zaizkien adina txosten tekniko eskatuko dizkie. Zehazki, esleipen irizpideekin, bidegarritasunarekin eta kaudimen tekniko eta ekonomikoekin erlazionatutako eskaintzen analisiak eskatu daitezke.

Lizitazio ekitaldia bukatutakoan, kontratazio Mahaiak proposamenak beharrezkoak iruditzen zaizkien aktekin, txosten teknikoekin eta egindako behaketekin igorriko ditu organo konpetentera bere esleipenerako.

Kontratazio organoak proposamen ekonomiko onuragarriena esleituko du, 12.klausulan zehaztutako irizpideak jarraituz edo lizitazioa bete gabea aitortuko du.



16- ESLEIPENA.

16.1 Esleipena.

Esleipena organo kontratatzaileak adostuko du ebazpena proposamen ekonomiko onuragarrienaren alde eginez eta hori aukeratzeko 12.klausulan aipaturiko irizpideak erabiliko dira eta SPKLren 63 eta 150.3 artikuluetan zehaztutakoaren arabera argitaratuko da.

16.2 Esleipenaren aurreko dokumentuak.

Esleipenaren aurretik eta jakinarazpen egunetik 10 egun balioduneko epean eskaeraren jakinarazpenetik hasita, esleipen proposamena dagokion pertsona lizitatzailerak, ondorengo egoerak arrazoitzen dituen dokumentuak aurkeztu beharko ditu:

- A) Legeak (SPKL 141.art.) eskatutako dokumentuak pertsona lizitatzailerak administrazioarekin kontratatzeko dauden baldintzak betetzen dituela adierazi behar ditu ondorengo bidez:
 - a) Pertsona juridikoa egiaztatzeko dokumentuak: pertsona enpresari indibidualak, NANaren egiaztaturiko kopia; pertsona enpresari pertsona juridikoak Erregistro Merkantilean edo dagokionean izena emandako entitatearen osaketa eta horien estatutuak agertzen dituen dokumentu edo idazkia. Europar Batasuneko kideak diren baina Espainiatik kanpokoak diren pertsona enpresarien lan egiteko gaitasuna haien jatorriko Estatuko legediaren erregistroan izena ematean edo zinpeko aitoren edo ziurtagiri baten bidez frogatu ahalako da, aplikazioko disposizio komunitarioekin bat eginez. Atzerritarrak diren gainerako enpresek dagokion Estatuko edo Ofizina Konsularreko Espainiako Behin betiko Misio Diplomatikako txostena agertu beharko du.
 - b) Ordezkaritzaarako dokumentu akreditatiboak: Proposamena pertsona lizitatzaileraren eskutik sinatua ez dagoenean, esleitutako botere hori egiaztatzen duen ziurtagiria atxikitu beharko da egiaztatutako NAN txartelaren kopia batekin.
 - c) Kaudimen tekniko eta profesionalaren dokumentu akreditatiboak: kaudimen hau 8.2. klausulan zehaztutako dokumentuen bidez egingo da.
 - d) Jardueren exekuzioaren erantzukizuna estaliko duen hirurehun mila euroko (300.000) aseguruaren kopia, baita jardueraren gauzatzeko derrigorrezkoak diren gainerako aseguruena ere.
- B) Zerga Betebeharra. Foru Ogasunak edo dagokionak igorritako ziurtagiri positiboaren bidez, zerga bete beharrak eguneratuak dituela ziurtatu beharko baitu.
- C) Gizarte-segurantzarekin betebeharra. Gizarte-Segurantzako Lurraldeko Diruzaintzak igorritako ziurtagiri positiboaren bidez, Gizarte-Segurantzarekin dituen betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatu beharko baitu edota horiek aurkeztera derrigorria ez dagoela justifikatu beharko baitu.
- D) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga. Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan izena emanda dagoela frogatzen duen ziurtagiria eta horien ordainketa eguneratua duela ziurtatzea azkeneko ariketaren ordainketa gutunaren kopia aurkeztuz, zeinari zerga horretan matrikulatua jarraitzen duela justifikatzen duen erantzukizun aitorea atxikituko zaion. Zergak ordaintzetik kanpo egongo balitz, egoera hori adierazten duen aitorea aurkeztu beharko da.
- E) Aldi Baterako Enpresen Batasunaren sorreraren idazkia (dagokion kasuan)



F) Behin betiko Berma, 21.klausulan ezarritakoaren arabera.

Lizitatzailerak esleipendun proposatzen denean honek ere Estatuko Enpresa Klasifikatuen eta Lizitatzaileraren Erregistro Ofizialeko ziurtagiria aurkeztu beharko du.

Esleipena Euskadiko kontratazio publikoko plataforman eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da eta lizitatzailerari jakinaraziko zaie. Gainera, esleipendunari eta gainerako hautagaiei zuzenean jakinaraziko zaie. Honek ez du esan nahi beste guneren batean ere argitaratuko ez denik.

Jakinarazpena honen harreraren lekukotasuna uztea ahalbidetzen duten edozein bidetatik burutuko da. Partikularki proposamenak aurkeztu dituzten pertsona lizitatzailerak edo hautagaiei mezu elektronikoa bidaliko zaie, Amankomuneko Prozesu Administrazioaren 39/2015 Legean xedatutakoaren arabera.

Kontratua bere esleipenarekin hobetzen da eta bere klausuletan kontrakoa esaten ez bada behintzat organo kontratatzailearen egoitzan ospatuko da.

17.- AMANKOMUNAZGOAREN ORGANOAK.-

Kontratu hau onartu eta esleitzeko LEA ARTIBAI Amankomunazgoaren organo kompetentea Batzar Orokorra da. Era berea, organo honek bere aldetarako gaitasuna izango du. Honek berak konpondu ditzake gai honen inguruan sor daitezkeen arazo litigioak eta hitzarmenak bide administrazioari amaiera emango diote eta horien aurka errekurtsio liskargile administrazioak ezarri ahalko dira.

18.- KONTRATUAREN INTERPRETAZIOA.-

Amankomunazgoaren Batzar orokorra izango da kontratuaren interpretaziorako organo kompetentea eta honek kontratua interpretatu eta horren betetzeak sor ditzakeen zalantzak argitzea, interes publikoarengatik aldaketak egitea, bere ebazpena adostea eta honen eraginak zehaztea, limiteen barruan eta indarrean dagoen legeak ezarritako eraginaren eta ezaugarrien arabera. Hori izaera egonkorrekin bide administrazioan ebatziko da eta horien aurka errekurtsio liskargile administrazioak ezarri ahalko dira.

19.-PERTSONA KONTRATISTAK KONTRATUAREN ETA BERE ARAUEN INGURUAN DUEN EZAGUTZA.-

Kontratuaren edozein alorren, dokumentu erantsien, jarraibideen, agirien edo Amankomunazgoak aplikatu ditzakeen edozein arauen ezjakintasunak ez du kontratista horiek betetzetik barkatzen.

20.- BERMAK.

Behin behineko berma eman beharko dute enpresek.

Behin esleipena jakinarazten denean, hamar eguneko garaile atera den pertsona lizitatzailerak hamar (10) egun baliaduneko epean kontratuaren diru kantitatearen %5a eman beharko du bermatzat.

Berma SPKLren 108 artikuluan ezarritako moduetara osatu daiteke berma eta HAKLAOko 55.artikuluan eta hurrengoetan adierazitako betekizunekin bat eginik. Betekizun hauek ez badira betetzen horri dagozkion arazoengatik, kontratua ebatzia geldituko da eta behin behineko berma ez da itzuliko.

Behin betiko berma prezioaren atxikipenarekin burutu daiteke horrela eskatuko balu esleipendunak.

Behin betiko bermak HAKLAOko 43 artikuluan aipaturiko kontzeptuei erantzun diezazkieke.



Behin betiko berma indarrean egon beharko da kontratuaren kitapen osora arte eta honen itzulpena eta kitatzea SPKLko 111.artikuluaren eta HAKLAOk 65.2 eta 3 artikuluetan jartzen duenaren arabera burutuko da.

21.- KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA.

Lizitatuzaileek esleipenaren jakinarazpena SPKLko 153 artikuluan aurreikusitako moduan biltzen duten egunetik kontatzen hasita 5 laneguneko epean gehienez ere sinatu beharko dute kontratua. Denbora berean esleipendunek Klausula Administratibo Partikularren Agiria sinatuko dute.

Kontratua dokumentu administratiboan formalizatuko da, zeinak edozein erregistro publikorako balioko duen. Hala ere, kontratua idazki publikoan formalizatuko da pertsona kontratistak horrela eskatzen duenean, SPKLko 153.artikuluaren arabera, honek sor ditzakeen gastuak bere kontu izanik eta horren kopia organo kontratatzaileari emanaz.

Kontratua epe horretan sinatuko ez balitz, SPKLko 153.4 artikuluan xedatzen denari jarraituko zaio.

Esleipenduna Aldi Baterako Enpresen Batasuna denean horren sorreraren idazkia aurkeztu beharko dute epearen barruan eta kontratuaren sinadura dataren aurrekoa izan beharko du.

Aurretiko formalizatzeko prozesurik gabe ezin izango zaio kontratuaren exekuzioari ekin. Iko 152.artikuluko eremu eta baldintzei jarraiki.

22k.- KONTRATUA OSPATZEKO UKAPENA ETA AMANKOMUNAZGOAREN ESKUTIK ESLEIPEN PROZESUA BERTAN BEHERA UZTEA.

Kontratazio organoak kontratuari uko egin diezaioke edo esleipen prozesua bertan behera utz dezake SPKLko 152.artikuluko eremu eta baldintzei jarraiki.

TÍTULO III. IZENBURUA. KONTRATUAREN EXEKUZIOA, ALDAKETA ETA IRAUNGITZEA.

23.- KONTRATUAREN LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Ez da kontratuaren lagapena onartuko eta hori gertatuko balitz, kontratuaren ebazpenerako kausa izango da, SPKLko 214 artikuluan zehaztutakoa izan ezean.

Kontratista den pertsonak lanaren zati espezifikoko batzuk azpikontratatze beharra badu, Amankomunazgoaren jakinean jarriko du aurretik eta idatzi baten bidez, azpikontratazioaren baldintza teknikoak argi utziz. Honek azpikontratazio hau onartzeko edo ez onartzeko eskubidea izango du eta aplikagarria den araudiaren barneko limiteen barruan, aipaturiko legearen 215. artikuluan xedatzen dena kontuan hartuz.

Azpikontratatze edozein kasu desegokirik badago, Amankomunazgoaren irizpidetik ikusita, kontratu honen galera ekar dezake.

Larrialdi enpresariak, instalakuntzak edota beste arazoengatik pertsona kontratistak Preskripzio Teknikoetan adierazitako baldintzetan zerbitzurik ezin eman dezakeela baloratzen badu, Amankomunazgoari horren berri ematera derrigortua dago, honek behar diren neurriak har ditzan zerbitzuari ahalik eta kalte gutxien egiteko asmoz.



Neurri horiek sor ditzakeen gastuak Kontratak ordainduko ditu zuzenean, bestelako isunik edo deskonturik aplikatu gabe, horretarako arrazoiak baleude.

Edozein kasutan, pertsona kontratistak ez badu artikulua honetan aipaturiko larrialdi horietakoren bat sortu dela edo sortuko dela ezagutu bezain pronto jakinarazten, falta larritzat kontsideratuko da.

24.- KONTRATUAREN EXEKUZIOA.

